



Titulua: Nafarroa. Lurralde sortzailea, lurralde hezitzailea

© 2016. Nafarroako Gobernua. Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua

© 2016. Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

Diseinua eta maketazioa: Cobo-Munárriz diseño gráfico

L.G.: NA-1600/2016



# SARRERA

Nortasunaren eta nongotasunaren balioak sendo finkaturik daude beren ezaugarri sozial, kultural eta etnografikoetan; balio horiek herritarrei zabaltzeko, etorkizunerako inbertsiorik hoberena da kulturaren adierazpenak gazteriaren hezkuntzara hurbiltzea.

Kultura Zuzendaritza Nagusia – Vianako Printzea Erakundeak zalantzarik gabeko apustua egiten dugu balio horiei bulkada ematearen alde, horretarako erabiliz ondarearen eta kultur adierazpenen zabalkuntza ekartzen duten kultur ekimenak, gazteria hurbildu nahirik Nafarroako errealitate identitario desberdinetara, hitzak beren zentzu zabalenean ulertuta.

*Nafarroa. Lurralde sortzailea, lurralde hezitzailea* kultur eskaintzan, artearen, museoen, liburutegien eta zinemaren inguruko jarduerak sartu dira 2016-2017 ikasturterako. Esparru horiei bertzelako ekimenak gehituko zaizkie epe laburrean, hala nola artxiboan eta ondare historikoaren alorretakoak, eskaintzen diren kultur adierazpen desberdinak osatu arte.

Iruña, 2016ko uztaila





# JARDUERAK

## A. ARTEA

- A.1 Arte garaikidea ikaskuntza prozesu bezala hedatzea . . . . . 6
- A.2 Hezkuntza prozesuak - Arte prozesuak . . . . . 7
- A.3 Ilustrazio eta autoediziorako laboratoriorio irekia . . . . . 8

## B. MUSEOAK

- B.1 Ikertzailea naiz museoan . . . . . 10
- B.2 Egun bat gidari Nafarroako Museoan . . . . . 11
- B.3 Abentura bat museoan . . . . . 12
- B.4 Kasakatxoa, lebita eta berokia... gudurako jantziak . . . . . 13
- B.5 Paperezko abenturak. Soldadu liberal eta karlistak . . . . . 14
- B.6 Emakumeak eta karlismoa . . . . . 15
- B.7 Bisitaldi gidatuak Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorrera . . . . . 16

## C. LIBURUTEGIAK

- C.1 Nire liburutegia . . . . . 18
- C.2 Atzoko liburutegia, gaurko liburutegia . . . . . 19

## D. ZINEMA

- D.1 Zinezten (zinema ikasbide) . . . . . 21









# Artea

AURKIBIDEA

## A.1 Arte garaikidea ikaskuntza prozesu bezala hedatzea

**Huarte** Arte Garaikideko Zentroa  
Centro de Arte Contemporáneo

**VACA proiektua** sortu da sareko lana sendotzeko arte plastiko eta bisualen irakaskuntzaren metodologiari dagokionez eredu berriak eskaintzen modu aktiboan engaiatzeko prest dauden ikastetxe eta hezkuntza entitateekin. Lan honen bitartez, bideak eskaini nahi dira ikasleak kultur ekoizle garaikide bilakatzeko; eskola eta arte zentroa, berriz, espazio legitimatzaile, eta curriculum bera, artelan.

Elkarrekin ikasteko espazio experimental baterako proiektua izatera dator vaca. Oinarrizko helburua da espazio bat sortzea, bertan Uharteko Zentroa izan dadin parte hartzen duten irakasleek prestakuntza aldetik dituzten premia eta interesen katalizatzailea. Prestakuntzarako espazio hori ikasgelara zabalduko da gero, irakasle bakoitzak, bere taldearekin, kultura garaikidearen inguruko proiektu artistikoa gauzatzen duenean.

### \* HELBURUAK:

- Artea prozesu gisa hartzen duen ideia garatzea.
- Ikasgelan arte garaikidea sustatzea zeharkako lanabes gisa, eta orobat sartzeari eduki eta formatu gisa.
- Sormena garatzea ikaskuntza erkidegoak berak eragindako prozesu berrien bitartez.
- Elkarlanean aritzea, eragile desberdinen arteko erabakiak, denborak eta edukiak autogestionatuz, sinergia berriak sortzeko.
- Proiektuetan oinarrituriko metodologia eta ikasgelan izan ditzakeen aukerak ezagutaraztea, baita diziplinen arteko zeharkakotasuna eta sareko funtzionamendua ere.
- Arte, artista eta museo kontzeptuak lantzea, kontzeptu bizi eta mugigarrien gisara, gurekin elkarri eragiteko gauza direnak.

6

<b>NORENTZAT:</b>	Praktika artistikoetatik abiatuta ikasprozesuak partekatu nahi dituzten irakasleentzat, izanik horiek Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak, Bigarren Hezkuntzakoak edo hezkuntza ez formalekoak.
<b>DATAK:</b>	Ikasurte barrenean (prestakuntza saioak irakasleekin, asteazkenetan 17:00etatik 20:00etara Uharteko Zentroan, eta lan jarraitua ikasgelan).
<b>PREZIOA:</b>	Doako proiektua.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Huarte Arte Garaikideko Zentroa, "Bitartean, Artea eta Hezkuntza" elkartarekin elkarlanean.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Posta elektronikoa hau erabiliz: <a href="mailto:educacion@centrohuarte.es">educacion@centrohuarte.es</a>
<b>ARGIBIDEAK:</b>	<a href="http://www.centrohuarte.es/educacion/vaca/">http://www.centrohuarte.es/educacion/vaca/</a> <a href="https://proyectovaca.wordpress.com/">https://proyectovaca.wordpress.com/</a>



## A.2 Hezkuntza prozesuak – Arte prozesuak



Hezkuntza komunitatearekin biltzeko prestakuntza saioak, haietan elkarrekin elkarlanerako proposamenak diseinatu ahal izateko; haien bidez Eskolaren eta Arte Garaikideko Zentroaren arteko harremanak berriz pentsatuko dira.

Eskaintza honek hainbat formatu izanen ditu, parte-hartzaileek azaltzen dituzten premia desberdinen arabera moldatuak. Halatan, honakoak proposatuko dira: tailerrak, hitzaldiak, debateak edo bisitak, espezialistak, artistak edo hezitzaileak lagun direla.

Hasieratik, gauzatu beharreko lau lerro hartu ditugu aintzat:

- Uharte Zentrorako proiektu berria eta hezkuntza komunitatearekin izanen duen harremana azaltzea.
- Uharte zentroan arte proiektuak garatzen dituzten artisten eta Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza eremuetan sortutako proposamenen artean harremanak ezartzea.
- Elkarlanean artista-artxibo bat diseinatzea irakaslanean erabiltzeko.
- Irakasleendako Arte Teoria edo tekniken gaineko tailerrak proposatzea.

*“Hezkuntza, bestela esateko, nor bere burua etengabeko kultura ekoizpen batean inplikatu eta baieztatzeko momentu jarraikia eta inoiz bukatu gabea da” (Ellsworth, 2005: 145).*

### \* HELBURUAK:

- Hezkuntza komunitateak dituen premia zehatzak finkatzea, Arte Zentroak bete beharrekoak.
- Hezkuntza prozesuak kultura prozesu gisa ulertzea.
- Arte garaikidea sortzeko lana eta hezkuntza proposamenak lotzea.
- Artea, artista eta Arte Zentroa bezalako kontzeptuak kontzeptu bizi eta mugikorrek bezala lantzea, gurekin elkar-eraginean airtzeko modukoak.
- Edukiak eta balioak bereganatu eta eraikitzeko prozesuak sortzea, gaitasun kritikoa bultzatuz.
- Sortze prozesua ikas esperientzia gisa baloratu eta diziplinarteko arte adierazpena bultzatzea.

<b>NORENTZAT:</b>	Hezkuntza etapa guztiak (Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza, Bigarren hezkuntza, batxilergoa, etab.) eta bestelako taldeak (elkarteak, eta abar).
<b>HIZKUNTZAK</b>	Gaztelania eta euskara (etapa guztiak).
<b>DATAK:</b>	Ikasturtean zehar.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Uharte Arte Garaikideko Zentroa. Hezkuntza Arloa.</b>
<b>ESKABIDEAK ETA ARGIBIDEAK:</b>	<a href="mailto:educacion@centrohuarte.es">educacion@centrohuarte.es</a>

## A.3 Ilustrazio eta autoediziorako laboratorio irekia



Egun osoan irakitako tailer eremua, edizioarekin lotutako arte proiekturen bat duten pertsonentzat. Bertan, beren proiektua modu autonomoan bururatzeko behar dituzten materialak eta lekua izanen dituzte eskura.

Laboratorio honek Zentroa 2012az geroztik bere “Liburutegi bizian” bilduz joan den ipuin ilustratuen funtsa izanen du erabilgai.

Berariazko tailerrak ere emanen dira ikasturte osoan zehar, hartu diren proiektuak bultzatu ahal izateko.

### \* HELBURUAK:

- Ilustrazio proiektu amateurrek bultzatzea.
- Sortzapen publikoko eremu bat eskaintzea herritarrei.
- Belaunaldi-arteko lan talde bat gara dadin bultzatzea.
- Ikus-hizkuntzari lotutako sortze prozesuak bultzatzea, elkar-ikaspenaren bitartez.
- Ikus-hizkuntzaren bidezko sortzapen pertsonalerako aukera ematea.
- Talde-lanean ezagupen sortze prozesuan parte hartzea.

<b>NORENTZAT:</b>	Adin txikikoak: 10 urtetaraino heldu bat lagun dutela. Helduak eta nerabeak.
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean.
<b>PREZIOA:</b>	Doakoa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Ez.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Uharte Arte Garaikideko Zentroa</b>
<b>ESKABIDEAK</b>	Posta elektronikoko hau erabiliz: <a href="mailto:actividades@centrohuarte.es">actividades@centrohuarte.es</a>



LA MONEDA en Navarra  
MUSEO DE Navarra  
31 mayo  
25 noviembre  
2001  
Pamplona

9

# MUSEOAK



## B.1 Ikertzailea naiz museoan



Bisitaldi didaktikoa **Nafarroako Museora**, ikasle bisitariek berengana ditzaten erakusgai dauden lan, koadro eta eskulturak.

Haurrek, asmakizun eta pisten bidez, halako gauza batzuk bilatu beharko dituzte lan batzuetan, edo aurkitu zer lanetan dauden, edo haren egilea nor den.

Gisa hartara, planteatzen zaizkien kontu horiek argituz, modu dibertigarrian ikasiko dute.

### \* HELBURUAK:

- Parte-hartzaileek ezagutzea Nafarroako Museoaren eraikina, eta bertan egoki moldatzen jakitea, arretaz, presarik gabe eta begiramenez bertara bildutako lanen aldera.
- Parte-hartzaileak modu dinamiko eta erakargarrian hurbiltzea bertan erakusgai dauden kultur ondareko lan batzuetara.

<b>NORENTZAT:</b>	Lehen Hezkuntza.
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Nafarroako Museoa San Domingo k., 47 - 31001 Iruña Telefonoa: 848 426 493
<b>WEBGUNEA:</b>	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+Navarra/Default.htm">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+Navarra/Default.htm</a>



## B.2 Egun bat gidari Nafarroako Museoa



**Nafarroako Museoa** egiteko jarduera didaktiko honetan proposatzen da haurrak museoko gidariak izatea, egun batez, beren familiekiko bisitaldian.

Horretarako, material didaktikoak argibideak ematen dizkie bilduma iraunkorreko borts lan gailenen gainean: Andelosko mosaikoa, Job-en kapitela, Leireko Kutxatila, Kristoren Nekaldiaren Horma-irudia eta San Adriango markesaren erretratua. Galde-erantzunen bitartez, jakinen dituzte artelan hauek ezkututzen dituzten sekretuak, eta horiek beren familiekin partekatzen ahalko.

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzen duten haurrek Nafarroako Museoko lan gailenak errotik ezagutzea.
- Gainera, gai izatea beren azalpenekin museora bisitaz etorri diren beren familiak interesatzea.

<b>NORENTZAT:</b>	7 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutilak. (Nonbait hor; ez da hezkuntza zikloekin berdintzen, familiendako jarduera irekia baita, eskola orduetatik kanpo gauzatzekoa).
<b>DATAK:</b>	Urte guztian. (Haurrak banan banako bisitariak izateko jarduera da, ez eskolarekin etortzekoa).
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai. Maileguan hartzekoa.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Nafarroako Museoa San Domingo k., 47 - 31001 Iruña Telefonoa: 848 426 493
<b>WEBGUNEAK:</b>	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+Navarra/Default.htm">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+Navarra/Default.htm</a>

## B.3 Abentura bat museoan



**Nafarroako Museoan** egiteko bisitaldi didaktikoa, ikuspegi desberdin eta zirrargarriagoa proposatzen duena.

Hurrek bisitaldi bat egiten dute museoan barna, Jones doktoreak lagunduta, hau da, Indiana Jonesen filmetako ikertzaile eta irakasleak, eta beren adimena erabili beharko dute proposatzen zaien misioa gauzatzeko, zer eta Leireko Kutxatila bilatzea.

Horretarako, gidak zehaztutako ibilbideari segitu beharko diote, lan zehatz batzuk bilatuz, baina bertzeak alde batera utzi gabe; gainera, lana astiki egin beharko dute, pintura edo eskulturetara sobera hurbildu gabe, ezta haiek ukitu gabe ere.

### \* HELBURUAK:

- Parte-hartzaileek Nafarroako Museoko lanak eza-gutzea, eta bertan moldatzen jakitea, arretaz, presarik gabe eta begiramenez bertara bildutako lanen aldera.
- Bertan erakusgai dauden artelan batzuk parte-hartzaileei modu dinamiko eta erakargarrian hurbiltzea.

<b>NORENTZAT:</b>	Lehen Hezkuntza.
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Nafarroako Museoa San Domingo k., 47 - 31001 Iruña Telefonoa: 848 426 493
<b>WEBGUNEAK:</b>	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+Navarra/Default.htm">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+Navarra/Default.htm</a>

## B.4 Kasakatxoa, lebita eta berokia... gudurako jantziak



Lantegi didaktiko honetan ikustaldia egingen da **Karlismoaren Museoaren** bilduma iraunkorrera; bertan, parte-hartzaileek zenbait gauza eta pertsonaia aurkitu beharko dituzte, eta gero horiek orri batean berriz ere egin eta koloreztatu.

Gisa hartara, erakusgai dauden ondasunak berengantuko dituzte eta ikasiko dute horiek bereizten eta museoan zer erabilera duten ulertzen.

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzaileek Karlismoaren Museoa ezagutzea, eta orobat haren gaia eta haren bilduma iraunkorra, jarduera didaktiko eta ludiko baten bidez.
- Eskuzko jarduera bat gauzatzea, parte-hartzaile bakoitzak ideiak lotu ditzan eta bere sormena gara dezan orriak koloretuz eta prestatuz.

<b>NORENTZAT:</b>	Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte).
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Karlismoaren Museoa Rua k., 27-29 - 31200 Lizarra Telefonoa: 948 552 111
<b>WEBGUNEAK:</b>	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/</a>



## B.5 Paperezko abenturak. Soldadu liberal eta karlistak



Bisitaldi didaktikoa egingen da **Karlismoaren Museoaren** bilduma iraunkorrera, ikasleek beregana dezaten XIX. mendeko gerla zibiletako armada liberal eta karlisten uniforme moldea, horretarako jatorrizko uniformeak eta pinturak erabiliz.

Bisitaldiaren ondotik parte-hartzaile bakoitzak soldadu bat egingen du eskuz, liberala edo karlista, koloretzatzen ahalko dituen ebakigarri batzuen bidez. Gisa hartara ezagutuko ditu armada bakoitzeko uniformeen bereizgarriak eta bereiziko haren ezaugarriak.

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzaileek Karlismoaren Museoa ezagutzea, eta orobat haren gaia eta haren bilduma iraunkorra, jarduera didaktiko eta ludiko baten bidez.
- Eskuzko jarduera bat gauzatzea, parte-hartzaile bakoitzak ideiak lotu ditzan eta bere sormena gara dezan ebakigarriak koloretuz eta erabiliz.

<b>NORENTZAT:</b>	DBH (12-16 urte).
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Karlismoaren Museoa Rua k., 27-29 - 31200 Lizarra Telefonoa: 948 552 111
<b>WEBGUNEA:</b>	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/</a>



## B.6 Emakumeak eta karlismoa



Lantegi didaktiko honetan ikustaldia egingen da **Karlismoaren Museoaren** bilduma iraunkorrera, arreta finkaturik XIX. mendeko eta XX. mendearen lehen hereneko mugimendu karlistan emakumeak izan zuen garrantzian.

Gero, parte-hartzaileei proposatuko zaie egunkari-azal bat prestatzea, bertan albisteren bat sarturik bisitaldian ezagutu diren emakumeei eta karlismoaren bertze pertsonaia batzuei buruz.

Gisa hartara, parte-hartzaileek ezagutuko dute zein izan zen emakumeak mugimendu karlistan izandako zeregina eta egindako ekarpena. Orobat, erakusgai dauden ondasunen ezagutza egingen dute eta ikasiko dute horiek bereizten eta museoan zer erabilera duten ulertzen.

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzaileek Karlismoaren Museoa ezagutzea, eta orobat haren gaia eta haren bilduma iraunkorra, jarduera didaktiko eta ludiko baten bidez.
- Arlo pribatu nahiz publikoan emakumeak mugimendu karlistan izandako zeregina nabarmentzea.
- Eskuzko jarduera bat gauzatzea, parte-hartzaile bakoitzak ideiak lotu ditzan eta bere sormena gara dezan egunkari-azala koloretuz eta erabiliz.

NORENTZAT:	DBH (12-16 urte).
DATAK:	Ikasturte barrenean.
PREZIOA:	Doako programa.
IKASMATERIALA:	Bai.
ANTOLATZAILEA:	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
ESKABIDEAK:	Karlismoaren Museoa Rua k., 27-29 - 31200 Lizarra Telefonoa: 948 552 111
WEBGUNEA	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/</a>

## B.7 Bisitaldi gidatuak Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorrera



**Karlismoaren Museoaren** bilduma iraunkorrera eginen den bisitaldi gidatuan mugimendu honen historian sakonduko da, XIX. mendetik Gerla Zibilaren amaiera arte, Espainiako eta Europako historia garaikidearen testuinguruan.

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzaileek Karlismoaren Museoa ezagutzea, eta orobat haren gaia eta haren bilduma iraunkorra.
- Gogoeta egiteko gaitasuna eta historia garaikidearen ezagutza garatzea.
- Curriculum akademikoa osatzea.

<b>NORENTZAT:</b>	DBH eta Batxilergoa.
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	Bai.
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Museoen Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Karlismoaren Museoa Rua k., 27-29 - 31200 Lizarra Telefonoa: 948 552 111
<b>WEBGUNEA:</b>	<a href="http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/">http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/</a>





# LIBURUTEGIAK



## C.1 Nire liburutegia



Bibliotecas Públicas de Navarra  
Nafarroako Liburutegi Publikoak

**Bisitaldia eginen da sareko liburutegi batera** eta bertan erakutsiko dira eskaintzen diren zerbitzu guztiak: liburuak, musikako CDak, filmak, aldizkariak, Internetarako sarrera (ordenagailuekin, edo Wifi bidez eta abar).

Gainera, azalduko zaie haietara nola iritsi, Interneteko katalogoaren bidez, bazkide-txartela eskuratzuz, materialak mailegatzeko aukera erabiliz, ikasteko giletara etorri edo fotokopiak egiteko aukera erabiliz.

Horrez landa, liburutegietan egiten diren bertzelako jarduerak, hala nola irakurle taldeak, idazketa lantegiak, liburuen aurkezpenak, poesia-musika errezitaldiak, ipuin kontalariak, antzerki edo txotxongilo emaldiak, mintzaldiak, lehiaketak, Liburuaren Eguneko ospakizunak, Bakearen Eguneakoak, Emakumearen Eguneakoak edo jarduera solidarioak.

<b>NORENTZAT:</b>	Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa. Gaztelaniaz edo euskaraz egin daitekeen, liburutegian berean galdegin behar.
<b>DATAK:</b>	Urte guztian. Ordutegia, galdegin behar.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Liburutegi Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Liburutegiari berari zuzenduta.

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzen duten hurrek liburutegiaren funtzionamendua eta eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ezagutzea.
- Liburutegia erakustea kultur eremu gisa, liburuen kontsultatik haratago, edo ikasteko eremu gisa.

### PARTE HARTZEN DUTEN LIBURUTEGIAK:

ABLITAS	CORELLA	ERRIBERRI
ALTSASU	CORTES	IRUÑA - Civican
ALLO	AURIZBERRI	IRUÑA - Mendillorri
ANDOSILLA	LIZARRA	IRUÑA -
AGOITZ	FALTZES	San Frantzisko
ARGUEDAS	FITERO	IRUÑA - Sanduzelai
ARTAXOA	FUNES	IRUÑA - San Pedro
AZAGRA	LARRAGA	IRUÑA - Txantrea
BARAÑAIN	LEITZA	GARES
BAZTAN	LODOSA	ERRONKARI
BERA	LOS ARCOS	SAN ADRIAN
BERIAIN	IRUNBERRI	ZANGOZA
BERRIOZAR	MARTZILLA	SESMA
NAFARROAKO	MELIDA	TAFALLA
LIBURUTEGIA	MENDABIA	TUTERA
BURLATA -	MENDIGORRIA	VALTIERRA
Haurrena	MIRANDA ARG	ARANGUREN IBARRA
CAPARROSO	MURCHANTE	EGUESIBAR
ZARRAKAZTELU	NOAIN (Elortzibar)	VIANA
CASCANTE	OLAZTI	
CINTRUÉNIGO		

## C.2 Atzoko liburutegia, gaurko liburutegia



Bibliotecas Públicas de Navarra  
Nafarroako Liburutegi Publikoak

Sareko liburutegi batera eginen den bisitaldian, ikus-entzunezko materialaren eta haurrendako liburu batzuen irakurketaren bidez, **liburutegien historia** azalduko zaie ikasleei, parez pare joan baita liburuaren historiarekin: buztinezko lehen taulatxoetatik haste, papirozko bilkariak, kodi-zeak, inkunableak eta abar tartean direla, liburu elektronikoraino.

Azalduko zaie nola, lehen liburutegi publikoak (gaur egun ulertzen ditugun bezalaxe) demokrazia modernoaren sorrerarekin batean agertu zirela, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran. Orobat aztertzen dira gaur egun dauden liburutegi motak. Hondarrean, Nafarroako liburutegien historiaren laburpena egiten da.

Historiaz gain, bertze bi alderdi aztertu eta azalduko dira liburutegi publikoei dagokienez. Lehen-lehenik, “liburuaren ekosisteman” duten zeregina. Hau da, lan batek egiten duen ibilbidea egilearen lumatik ateratzen denetik (aipamen berezia eginez bertze egiletza ez hain aitortu batzuei, hala nola irudigileei, itzultzaileei edo sarrera-egileei) irakurleen eskuetara ailegatzen den arte. Bigarrenik (rol-jokoen eta mahai-jokoen bidez) aztertuko dira zertan berdintzen diren eta zertan bereizten liburutegi publikoak eta hurbi-leko bertze zerbitzu batzuk (publikoak izan edo ez izan). Zerk berdintzen ditu eta zerk bereizten liburutegiak eta liburu dendak, liburutegiak eta museoak, liburutegiak eta eskolak, liburutegiak eta egunkariak, liburutegiak eta artxiboak eta abar?

### \* HELBURUAK:

- Parte hartzen duten haurrek ikastea liburutegi publikoaren historia eta denboraren joanean nahiz egungo gizartean izan duten xedea eta zeregina.
- Liburutegia erakustean nabarmentzea irakurleen eta idazlanen arteko topalekua eta milaka urteko historia duen erakundea dela.

### PARTE HARTZEN DUTEN LIBURUTEGIAK:

ABLITAS	CORELLA	NOAIN (Elortzibar)
ALLO	CORTES	OLAZTI
ANDOSILLA	AURIZBERRI	IRUÑA - San Frantzisko
ARGUEDAS	FITERO	IRUÑA - Sanduzelai
ARTAXOA	LARRAGA	SAN ADRIAN
AZAGRA	IRUNBERRI	ZANGOZA
BARAÑAIN	MARTZILLA	TUTERA
BERA	MENDABIA	ARANGUREN IBARRA
CASCANTE	MURCHANTE	EGUESIBAR
CINTRUÉNIGO		

<b>NORENTZAT:</b>	Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa. Gaztelaniaz edo euskaraz egin daitekeen, liburutegian berean galdegin behar.
<b>DATAK:</b>	Urte guztian. Ordutegia, galdegin behar.
<b>PREZIOA:</b>	Doako programa.
<b>IKASMATERIALA:</b>	
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Liburutegi Zerbitzua.</b>
<b>ESKABIDEAK:</b>	Liburutegiari berari zuzenduta.





20

# ZINEMA



AURKIBIDEA





## D.1 ZINEZTEN (zinema ikasbide)



**ZINEZTEN** (zinema ikasbide) proiektuaren helburua zinemaren bidez heztea da, ahalik eta hobekien erabiliz irakasbide eta ikasbide izan dadin, eta herritar kultu eta kritikoak prestatzen lagungarri.

Hona programaren funtsa:

- \* Ikasleak (DBH, Batxilergoa, LH) film luzeen proiektioetara ekartzea, goizeko saioetan, GOLEM zinema aretoetan.
- \* Aurretik, titulu egokiak hautatuko dira adin tarte, curriculum eta hezkuntza-balio bakoitzerako.
- \* Unitate didaktikoak prestatuko dira, berariaz, titulu bakoitzerako.
- \* Jarduerak eginen dira emanaldiaren aitzin eta emanaldiaren ondotik.
- \* Jarduera eta ikaskuntza ebaluatuko dira.

Administrazio publikoak eta zinemaren sektoreak kezka bera partekatzen dute, alegia, ikusle gaztea berreskuratzea zinema aretoetarako. Artea eta kultura izan edo aisialdia eta ihesbidea izan, zinemak beti kontaktzen ditu etnia guztietako pertsonaien istorioak planetako zoko desberdinenetan, arazo hurbil nahiz urrunen oihartzun eta mundurako lehen lerroko leiho.

Hain zuzen ere horregatik, sinetsirik gaude zinemaren ahalmenaz ikasteko tresna gisa Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan; sinetsirik, orobat, ikus-entzunezko elementuaren indarrak herritar kritikoak prestatzeko, natibo digital horiengandik abiatuta, haien hezkuntza inoiz baino beharrezkoagoa baita bai informaziora duten sarbideari bai informazioaz egiten duten erabilerari dagokionez.

Hartara, ikaskuntza horren atal bat izanen da 100'-ko film luzea zinema areto batean ikuskatzeko behar den arreta eta kontzentrazioarako gaitasuna berreskuratzea, baita gure ikasleei ikasgelatik ateratzeko parada ematea ere zinemaren magia ezagutzeko eta gozatzeko, kultura, arte eta aisialdirako bertzelako aukera eta esperientzia bat izan dezaten telebistaz, ordenagailuaz edo mugikorraz aparte.

Azkenik, titulu guztiak jatorrizko bertsioan eskaintzeko aukera emanen litzateke, hizkuntzen ikaskuntzaren eta azpituduekin ikuskatzeko ohituraren indargarri.

### \* HELBURUAK:

- Zinema hezbidetako, ikasbidetako eta irakasbidetako erabiltzea.
- Ikasleak ikus-entzunezko lanen ikuskaldi kritikorako prestatzea, gai izan daitezen lan horiek baloratzeko, aztertze eta eztabaidatzeko.
- Parte hartzeko lana eta ikasgelako eztabaida sustatzea bertze kulturei eta gaur egungo gaiei buruz.
- Haien prestakuntza akademikoa osatzea, zinemara joz historiako, arteko eta literaturako pertsonaia, garai eta gertakariei argi emateko.
- Gizalegezko balioen arabera heztea, espazio publikoetan egoki jokatzeko eta kultura aniztasuna gizarate baten aberastasun gisa onartzeko.
- Hizkuntzen ikaskuntza indartzea, proiektioak eginen jatorrizko bertsioan eta espainierazko azpituduekin.

<b>HARTZAILEA:</b>	Irakasle jakin-nahiak eta ikasprozesuak berritu gogo dituztenak, zinemaren baliabidea hezkuntzarako tresna gisa ahalik eta hobekien erabiliz ikasgelatik kanpora, eta ikusle berriak eta kritikoak sortzen lagunduz.
<b>DATAK:</b>	Ikasturte barrenean; ikastetxeen premien arabera egokitu beharko da, betiere goizeko saioetan.
<b>PREZIOA:</b>	2 € / ikaslea.
<b>IKASMATERIALA</b>	Bai (nola prestatuko den zehaztuko da).
<b>ANTOLATZAILEA:</b>	<b>Golem</b>

## IZAN LITEZKEEN TITULU BATZUK, 2016-2017 IKASTURTERAKO



### MAYO DE 1940 (Christian Carrion, 2016). GAZTELANIAZ

<http://golem.es/mayode1940/>

**Sinopsia:** 1940ko maiatza. Alemanen inbasiotik ihesi, Frantziako iparraldeko herri txiki bateko biztanleek errepidera jo dute, milioika frantses egiten ari diren bezala. Berekin batera haur alemaniar bat daramate; haren aita nazismoaren aurkaria da, baina Arras hirian kartzelatu dute bere nazionalitateaz gezurra erranik. Inbasioaren ondoko anabasan libre geldituta, bere semearen bila atera da, etxera itzuli nahi duen soldadu eskoziar bat lagun hartuta.

**Intereseko gaiak:** exodoa, errefuxiatuak, gerra, nazismoa, erresistentzia, memoria historikoa.



### TIMBUKTU (Abderrahmane Sissako, 2015). GAZTELANIAZ

<http://golem.es/timbuktu/>

**Sinopsia:** Muturreko erlijiosoek beren eskutan hartu dituzte Tonbuktu inguruak. Kidane lasai aski bizi da dунetan, emazte Satimarekin, alaba Toyarekin eta Issam haur artzainarekin. Hirian, jihadistek ezarritako izua bizi dute biztanleek: debeku da musika entzutea, irri egitea, erretzea, are futboleak aritzea ere. Emakumeak itzal bilakatu dira, duintasunez eustera saiatzen direnak. Egunez egun, nola edo hala eraturako epaitegiek epaiak ematen dituzte, zenbat eta zentzugabeagoak hainbat eta zorigaiztokoagoak. Tonbuktu jabetu den kaosak ez dio Kidaneri eragiten, harik eta, istripuz, Amadou hiltzen duen arte, "GPS" bere behirik maiteena akabatu duen arrantzalea. Orain, okupatzaile atzerritarrek ezarritako legeei eman behar die buru.

**Intereseko gaiak:** muturreko islamismoa, erlijioa, askatasuna.



### AMAMA (Asier Altuna, 2015). EUSKARAZ

<http://www.txintxua.com/film/amama/>

**Sinopsia:** Baserriak aspaldiko mundua irudikatzen du, bizimodu bat, jakintza modu bat eta balio batzuk, gure begi parean aienatzen ari direnak; familia da, menderen mendetan herentzian jasotako ezagutzaren zola sakonenean errotzen den klana. Bi munduk talka egiten duten tokia da familia, aita-amen eta seme-alaben arteko soka hausten den lekua. Tomasen eta Isabelen hiru seme-alabek bizi dute mundu zaharraren eta berriaren arteko gatazka. Nola bizi hirian baserriari bizkarra eman gabe, nola hartaz libratu ezagutzaren katea hautsi gabe, nola nork bere bidea hautatu arbasoak saldu gabe. Amaiak artearen bidez egiten die aurre bere baitan bizi diren bi mundu horiei. Bere bidea aurkitzeko baserritik atera behar du, aitarekin liskartu, zauriak eragin eta lokarria hautsi. Ezin izanen du bere artelana sortu aurkitzen ez badu aurrekoen ondare guztiarekin batera bizitzeko modua. Bitartean, amama –amatxi, amona– guztiei begira. Iduriz eta haren begiradak mutazio horri zentzua ematen diola, mundu bat bukatzen eta, itxuraz, bertze bat sortzen ari den honetan.

**Intereseko gaiak:** matriarkatua, lurrarenganako maitasuna, artea, dikotomiak: gizonezkoa-emakumezkoa, aita-alaba, modernitatea-tradizioa.



### LOREAK (Jon Garaño y Jose Mari Goenaga, 2014). EUSKARAZ

<http://www.loreakfilm.com/es/>

**Sinopsia:** Aneren biziak bertze norabide bat hartu du, asteak astei, etxean lore sorta hartzen hasi denetik. Beti ordu berean. Eta beti izenik utzi gabe. Lourdesen eta Tereren bizia ere lore misterioitsu batzuek zilipurdikatu dute. Ezezagun batek, astero, lore sorta uzten du haien bizietan garrantzitsua izan zen norbaiten oroigarri. Hiru emakumeren istorioa da hau, hiru bizi, lore sorta batzuen agerpen hutsak bertzelakotuak. Loreek sentimendu ustez ahantziak azaleratuko dizkiete... Alabaina, azken buruan, loreak baizik ez dira.

**Intereseko gaiak:** emakumea, sentimenduak, adimen emozionala.

